

te alde igarotea galazorik. Onela, «birikiko zain-tapa batek» birikiaren bestekaldeko zatia, auleriz, odolak uts-egiten dautsolako.

Birikietako enboli geienak, oso txikiak dira-ta, ez dabe ezaugarri-rik ekarten, ezta oartzeko aztarna-rik be, eta dakarren gatxa edo kal-tea ezta aintzat artzekoa. Zain-tapa edo enboli aundiak min go-gorak sortu oi dabez bularrean, arnasa gitxitze bat-batekoak eta baita komorte galtzea be.

Biriki-sail aundi bat ersitua da-nean, beronen zati aundi bat eze-reztua izan daiteke eta au jasoten yakona il daiteke sastakoan: biriki enbolia gogorak urtean 50.000 bat eriotza bat-bateko gitxi gorabera ekarri oi ditu Lateral Batuetan.

Izparringietako irakurleak, irra-ti-entzuleak eta telebista ikusleak —oneitatik askok bear bada egun-go ez eben entzun ezer gaixo one-taz—, jakin eben zerbait onetzaz 1.974'gneko bagillean; orduan bait zan agertu egunkarietan, garai aretan Lateral Batuetako lendaka-ri, Richard M. Nixon, Sorkalde Er-ditik ostera baten ebillela eta illa-bete batzuk geroago Sobiet-erre-sumako buruzagiakaz alkartzeko Mosku'ra joialarik, ezkerreko ber-nan eukan zain-suar aspaldikoa gordindu egin yakola eta gorbizte berezik egin be.

Orduan 61 urte eukazan lenda-kari ori izan zen gaixoarren ondo-re latzak sufridu ebezan gitxi bat-zuetatik bat. Osagilleak gero aur-kitu eben Nixon jaunaren bernako

odol-batun txiki bat aren biriki-geratu zala itsatsita; ebakotari bat tek, urratu bat egiñik, 3tz bat erdiko (3,75 zentimetro) Teflon klip bat landadu eutsen zain-tatean, beste odol-batun batzuetan zaindu ta aren birikirako igarot-jagoteko. Operaziñoa arrakasta aundikoa izan zan, baiña barru-odol-jarioak eta ebaketa onela beste naste batzuk egunetan egin eben egoera larrian.

«Azaletiko zain-aunditzea» naruru dagoan zain batek zain-dakar eta sarritan orban bigun bat dauka, kordel baten antzekoa, eta berau ikutuz gorria ta berona izan daiteke. Naruru zear sentidu lehen-na azaletik ur-ur dagoan odol bat-tuna dozu. Kolore gorria ta berona suna daukaz su-arturik dagoalako «Tronbo-zain suar sakonetan» ber-na-barrengo zanak (edo gorpuzka-ren beste alderdi batzuk) maitatu-tuta dagoz, eta oneik ezin daiteke ez ikusiak ez somatuak izan naruru-azalaren barrena. Oneik zain-azalekoak baiño aundiagoak dira ezkerre, odol batunak be aundi-agoak dira, eta naiko arriskutsu-agoak.

Era bi oneitariko zain-gaitza-tzat, osagilleak geienetan zain-aurkako drogak agintzen dabez eta bero-sendabide batzuk (halo-beroak, adibidez, egunero bi egun-geiagotan), eta baita aolkatzten da-be bernea lumatxa gain jasotzeko eukiteko be. Zain-suar (flebitis) sakonean, sufritzen dauan artu-dau sarri batunen aurkako drogak

osabidea be; odol-batun aurkako oneik meetu egin oi dabe odola, batunak agertzea galazoteraiño meetu be.

Gatxa zan tronbo-zain-eria, sa-kona batez be, igartea, gaurko osabideak agertu izan diran ar-tean. Gaur-egunez, osagilleak soi-ñu-entzuna deritxon tresna (gi-za-entzumenak artu ezin daikena) eta radar teknikak erabilten dabez ortarako: oneik zuzentzen dabez -odol-bultzak edo-ta eletroi-soiñu-kulunkak edo-ta eletroi-zainarantz, eta tresnak artu ta az-tertzen ditu zainetik datozen oiart-zunak. Arturiko oiartzunok azter-tuaz, osagilleak errez erabaki ta mugatu daikee zelako odol-jarioa dabillen zanetan zear eta bear ba-da odol-batun edo-ta beste eragoz-penen baten itxita dagozan ala ez.

Birikietako enboli baten susmo-rik ba'litz, kaltegarri ez dan gun erradiz eragille bat txi xiringatzen dabe osagilleak gaixoaren besoan, baita onen bular gainean dirdaidu-

rak artzen dabezan tresna. Odolak besotik birikira gun-erradiz eragi-lla eroan ala, gun orrek emonda-ko dirdaidurak tresna orrek —dir-dai-neurle lez ezagutuak— idazten ditu, erradiz-eragin zatitxoak biri-ditu, erradiz-eragin dagozan era-kian zelan bananduta dagozan era-kusten dauan marrazki bat egiñik. «Dart otz» batek (emon dirdairik ez danean) erakusten eta iragarten dau batun batez itxita odola egon-leikelakoa.

Giza-soin barruan oraintsu as-maturiko «leioak» eta droga eragi-llenak billatze etenbakoak, zain-suarra osatu ta tronbosi ta enbo-liak ekarri leikezan gatxai aurea artzeko biderik onenak aurkituko diralako itxaropenez indartzen gaitue.

Orrela, zain-suarra, ezagutuago ta aztertutagoa dan neurrian, gaitz arrisku gutxiagoko errez biurtu daiteke.

Aita ONAINDIA 'k euskeratua

Sano-sano II

Gizon aberats bat azkenetan dago. Bera etzanda dagoen oiaren inguruan bi sen-dagille ospetsu dagozte, iltzera doan gizona animatu nairik, berak daukan gaitzari garrantzia kendu nairik.

«Biotza oso ondo erantzuten ari da» —esaten du batek.

«Eta gibelataz zer esaten didazu? Bikain ari da funtzionatzen» —dio besteak.

«Bestaldetik, giltzurdiña ere ondo ari da lanean» —esaten du lenengo itz egin duanak.

Une artantxe, begiak ezin ireki dituala, jaikitzen da pittin bat azkenetan dagoen gizon aberatsa ta onela dio:

«Zueri entzunda gero, ikusten nago sano-sano il bear dudala».